

Eibarko Udalak Arduinoko ikastaro bat antolatu du sorkuntzatik EKiNera pasatzeko asmoz, buruan dituzun ideiak aurrera eramaten laguntzeko. Maker-egileak.

Tramitatzailea: Ekonomia, berrikuntza eta enplegua

Hartzaileak: + 16 urtetik gorakoentzat

Ordutegia:

Konferentzia: 09:00etatik 10:00etara. Sarrera librea

Tailerra: 10:00etatik 14:00etara. Izen ematearekin.

Ikastaroaren prezioa: 21€ (Eibarren erroldatuak)

35€ (Eibartik kanpokoak)

Ikastaroaren ordainketa: matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta

Eskaera egiteko tokia:

PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

Aurkeztu beharreko agiriak:

Nork emango du: BilbaoMakers

Non eta noiz: Indianokua gaztelekuan

Martxoak 29 larunbata

Ikastarora ekarri behar den materiala:

Portatila eta ARDUINO softwarea instalatuta.

Arduino.cc-en deskargatzeko.

Norberak bere kit-arekin tailerra burutzea nahi duenak

Fermin Kalbetoiko INFOSEC dendan eskatu ahal

izango du.

Ikasle kopurua: gutxienez 10 ikasle, eta gehienez 20 ikasle

Eskaera egiteko epea:

Martxoaren 10tik 17ra (biak barne)

“IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.net, eskuragarri).

Eskatzailea heldua bada: eskatzailearen NANaren edo balio bereko dokumentu baten kopia.

Eskatzailea adin txikikoa bada:

Aitaren, amaren edo tutorearen NANaren edo balio bereko dokumentu baten kopia.

NAN dokumentuen alde biak A-4 neurriko alde bakar batean inprimatuko dira.

Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako

ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.net), **martxoaren 21ean**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **martxoaren 19an 14:00etan** Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio. Bi zerrenda egongo dira, ordutegi edo txanda bakoitzeko bat. Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zerrenda bakoitzeko zenbaki bakar bat ateratzen da. Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horren jarraian dauden zenbakiak dituztenak izango dira ikastarorako aukeratuak plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean egongo da **martxoaren 21etik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Oharrak: Talde batean matrikularako izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada eta beste taldean izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, aurreneko taldea beste taldearen ikasle-kopuruz osatu ahal izango da zozketak emandako emaitzari atxikituz.

Informazio gehiago: 943 708 437